EUSKAL
MUSIKAREN
ASTEA

ERRENTERIA
2016

SEMANA
DE LA MÚSICA
VASCA

# musikaste 44

maiatzaren 19TIK 28ra - DEL 19 AL 28 DE mayo

ERRENTERIA
2016

# 44 EUSKAL MUSIKAREN ASTEA

# SEMANA DE LA MÚSICA VASCA

ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN
Andra Mari Abesbatza
Coral Andra Mari
Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa
Eresbil-Archivo Vasco de la Música

SUSTATZAILEAK PROMUEVEN
Errenteriako Udala
Ayuntamiento de Errenteria
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Eusko Jaurlaritza Kultura Saila
Departamento de Cultura
del Gobierno Vasco

BABESLEA PATROCINA
Kutxa Fundazioa

LAGUNTZAILEAK COLABORAN
Errenteria Musikal
Musikene
Musikagileak
Musika Bulegoa
Laboral Kutxa
Super Amara

04. Aurkezpena / Presentación

06. "Ez dok amairu" Musikasten

Musika Bizia
13. Musika Garaikidea / Música Contemporánea
17. Jazz Musika / Música de Jazz
19. Kale Ikuskizuna / Espectáculo Callejero
23. Igande Jarduna / Jornada Dominical

Beste ekintzak - Musika Hezkuntza
25. Errenteria Musikaleko Taldeen Emanaldiak
27. Kontzertu Didaktikoak / Conciertos Didácticos

Musika Ondarea
35. Ganberako Musika / Música de Cámara
41. Koruen Eguna / Día Coral
49. Amaierako Kontzertua / Concierto de Clausura

51. Konpositoreak / Compositores



Iñigo Arizmendi

44

# EUSKAL MUSIKAREN ASTEA
# SEMANA DE LA MÚSICA VASCA

La SEMANA DE LA MÚSICA VASCA que se celebra anualmente en Errenteria, este año en su 44 edición, tiene un hilo conductor llevado por la VOZ. El festival quiere festejar con esta particularidad el cincuenta aniversario de la fundación de su creadora, la Coral Andra Mari de Errenteria. 2016 es además el año de la Capitalidad Cultural Europea de San Sebastián. En colaboración con la Oficina de la Capitalidad y en el marco del programa "Conversaciones", MUSIKASTE 2016 presenta dos programas especiales: BASQUE LIEDER, un viaje por el tiempo a través de los compositores vascos que compusieron en idiomas europeos. Estructurado en tres bloques, desde el salón dieciochesco con Rophino Lacy en inglés o Pierre Garat en francés; la canción y el aria romántica, con Hilarión Eslava o Joaquín Gaztambide en italiano; y la canción del siglo XX, con Pablo Sorozábal o Andrés Isasi en alemán.

EZ DOK AMAIRU, un homenaje a la nueva canción vasca, a través de los arreglos corales de 12 compositores vascos contemporáneos de otras tantas melodías creadas por Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Julen Lekuona y Jose Angel Irigarai.

MUSIKASTE presenta la nueva cantera de músicos de jazz a través de las *big-bands* de los tres centros educativos de las capitales de Donostia, Bilbao y Vitoria-Gasteiz, claro exponente de la vitalidad del jazz en el sistema educativo vasco.

MUSIKASTE quiere recordar también al Grupo GAUR de creación plástica a través de la música de autores contemporáneos como Ramon Lazkano, Bruno Dozza, Paula Álvarez, Brais Nóvoa, Diego Parra o Francisco José Domínguez, juntamente con la obra Karraxiz de Sara Soto sobre textos de Néstor Basterretxea.

La semana se clausura con un concierto que incluye la obra Gernika – Lekeitio 4, de Mikel Laboa en orquestación de Ramon Lazkano, el recuerdo del compositor de música religiosa Vicente Goicoechea y el estreno de la obra Balea, del compositor Gabriel Loidi, en el inicio del cincuentenario de la Coral Andra Mari.

Urtero Errenterian ospatzen den EUSKAL MUSIKAREN ASTEAK, aurten 44 urte beteko dituenak, AHOTSA izango du ardatz nagusi. Errenteriako Andra Mari Abesbatzaren berrogeita hamargarren urteurrena ospatu nahi izan du, jaialdiaren fundatzailea baita. 2016an ere, Donostia izango dugu Europar Kulturaren Hiriburu. Hiriburutzako Bulegoarekin lankidetzan eta "Elkarrizketak" programaren markoaren baitan, MUSIKASTEK bi programa aurkeztuko ditu: BASQUE LIEDER, hizkuntza europarretan konposatu zuten euskal musikagileen lanei buruzko bidaia denboran zehar. Hiru ataletan sailkatzen da: hamazortzigarren mendeko saloia Rophino Lacy inglesez edo Pierre Garat frantsesez; Kantu eta aria erromantikoa Hilarión Eslava edo Joaquín Gaztambide italiarrez; eta XX. Mendeko kantua Pablo Sorozabal edo Andrés Isasirekin alemaniarrez.

EZ DOK AMAIRU, Euskal kantagintza berriari omenaldia, egungo 12 musikagilek Lourdes Iriondok, Xabier Letek, Benito Lertxundik, Julen Lekuonak eta Jose Angel Irigaraik egin zituzten abestien korurako moldaketen bidez.

MUSIKASTEn jazz musikarien harrobi berria aurkeztuko dugu, Donostia, Bilbo eta Vitoria-Gasteizeko kontserbatorioetako *big-band*-en parte hartzearekin, jazzak egungo hezkuntza sisteman duen bizitasunaren adierazgarri.

MUSIKASTEk sorkuntza plastikoko GAUR taldea gogora ekarri nahi du musika garaikideko autoreen musikaren bitartez, beste batzuen artean: Ramon Lazkano, Bruno Dozza, Paula Álvarez, Brais Nóvoa, Diego Parra edo Francisco José Domínguez. Era berean Sara Sotoren Karraxis obra entzungai izango dugu Néstor Basterretxearen testuetan oinarritua dagoena.

Asteari amaiera emango diogu, Ramon Lazkanok orkestratu duen Mikel Laboaren Gernika – Lekeitio 4 obrarekin; Vicente Goicoechea konpositorearen erlijio musika ere gogora ekarriko dugu eta Andra Mari Abesbatzaren berrogeita hamargarren urteurrenaren abiapuntu gisa, Gabriel Loidiren Balea obra estreinatuko da.



**III CENTENARIO DEL NACIMIENTO**

Francisco de IBARZÁBAL (1716-s.d.)

**II CENTENARIO DEL FALLECIMIENTO**

Blas de LASERNA (Corella, 1751-1816)

**II CENTENARIO DEL NACIMIENTO**

Antonio ASCORBE (Oñati, 1816-1866)
Francisco PORCEL (Bilbao, 1816-s.d.)
José Manuel USANDIZAGA (Donostia, 1816?-1881)

**I CENTENARIO DEL FALLECIMIENTO**

Mariano ZUAZNAVAR (Azkoitia, 1841-1916)
Vicente GOICOECHEA (Ibarra de Aramayona, 1854-1916)
Juan GUIMÓN (Donostia, 1865-1916)
José Francisco ESNAL (Donostia, 1868-1916)

**I CENTENARIO DEL NACIMIENTO**

Antonio de IRIZAR (Lazkao, 1916-1937)
Javier GARCÍA ROMANO (Corella, 1916-1971)
Pedro José PEÑAGARICANO (Larraul, 1916-1983)
Angel BARRAINCUA (Durango, 1916-1986)
Ramon Modesto ARAMBURU (Beasain, 1916-1990)
Faustino Azpiazu, “SAKABI” (Lastur, 1916-1995)
Francis LOPEZ (Montbeliard, 1916-1995)
Victoriano TELLERÍA (Idiazábal, 1916-1997)
Agustín de GARAMENDI (Lekeitio, 1916-2000)
Alfredo COBOS (Portugalete, 1916-2001)
Hipólito ZUBILLAGA (Errenteria, 1916-2007)
Ramón ESNAOLA (Urretxu, 1916-2013)

Iñigo Arizmendi

# "EZ DOK AMAIRU" MUSIKASTEN

Itziar Zubizarreta

Euskal kulturgintzan "Ez Dok Amairu" taldeak leku berezi bat hartu zuen bere garaian eta haren ospea eta oihartzuna ezinbesteko erreferentzia bilakatu da gaurdaino. Euskal musikaren eta kantugintzaren alde egin zuten apustuak ikusgarritasuna eskaini zion oso baztertuta zegoen hizkuntza eta kultura musikalari. Batetik, tradiziozko kantu ederrak hedatu zituzten Euskal Herriko herri eta plaza asko eta askotan. Bestetik, aipatu partaideek gizakiarekiko eta gizartearekiko gorde zuten konpromiso sendoa. Garaiko gizartearen kezkak eta tradiziozko musika abangoardiko adierazpenez interpretatu zuten beren kantugintzan, eta euskal musikari plano berezi bat eskaini zioten diktaduraren azken une haietan, tradizioari abangoardiko leku bat eskainiz.

Taldea 1965ean hasi zen osatzen, partaide bakar batzuen ekimen eta eraginari esker. Hainbat kultur pertsonek ere babesa eta laguntza eskaini zieten beren hastapenean. Baina, batez ere, kantari eta poeta haiei zor diegu euskal poesia eta kantugintzaren alde hartu zuten konpromisoa; herriz herriko ibilbide bihurri batean, jendearen aurrean agertzen zuten kulturarekiko harrotasuna. "Ez Dok Amairu"k folklorearen egokitze eguneratuak sortu zituen, kultura unibertsaleko hainbat autoreren lanak eskaini eta taldearen hainbat partaideren ekarpen poetikoak gizarteratu zituzten kantuan. Euskal gizartea harritu egin zuten beren ibilbidean euskal kulturaren balio eguneratua eskaini ziotenean eta aldi berean gizartearen aldarrikapenak azaltzeko adierazpen tresna kolektibo bat sortu zutenean.

1970ean, taldeak "Baga, Biga, Higa, Sentikaria" estreinatu zuen; ikuskizun kolektibo batean biltzen zuten musika, kantugintza, errezitaldiak eta dantza, abangoardia adierazpide estetiko baten barne. "Baga, Biga, Higa, Sentikaria"k taldearen gailurra jo zuen eta, aldi berean, ikuskizun horrek markatu zuen talde-ekimenaren bukaera. Handik aurrera, artista haietako batzuek jarraitu egin zioten beren ibilbide artistikoari; beste hainbat gelditu egin ziren.

Egitaraua DSS2016 Kultura Hiriburuarekin koprodukzioan aurkezten da.




Herriz herriko ibilbide bihurri batean, jendearen aurrean agertzen zuten kulturarekiko harrotasuna










1970ean, taldeak "Baga, Biga, Higa, Sentikaria" estreinatu zuen








Iñigo Arizmendi


musika bizia
YAMAHA



# CORO AMETSA ABESBATZA

http://www.coroametsa.org

El Coro Ametsa fue creado en Irun en 1957. Ha participado en numerosos concursos nacionales (Cocentaina, Zumarraga, Burgos o Tolosa) e internacionales (Gorizzia, La Haya) en los que ha obtenido destacados premios. Ha participado en destacados Festivales (San Sebastián, San Juan de Luz, Lourdes, Hondarribia, Valladolid, Cambes o Pons) y semanas culturales (Burdeos y Valladolid).

Con un repertorio centrado en obras polifónicas de épocas diversas, y con especial atención a la música coral de autores vascos, ha tomado parte en los últimos años en conciertos sinfónicos interpretando repertorio universal así como ha participado como coro en proyectos operísticos (*Madama Butterfly* o *Don Pasquale*). Ha grabado once discos, destacando el de la *Misa en La b M* de F. Schubert (1981), y la participación en el monográfico de la compositora irunesa Sara Soto (2006). Cabría destacar asimismo el montaje y posterior grabación de la *Misa Festiva* de A. Lesbordes para el festival Internacional de Música de Lourdes. En octubre del 2008 estrena y graba la *Misa Ametsa* para coro mixto y violonchelo del compositor Jordi Lluis Rigoll junto con el violonchelista Iñaki Etxepare.

En el año 2007 la Sociedad Cultural Coro Ametsa celebró el 50 aniversario de su fundación. Su director actual es Fernando Etxepare Gómez.

Ametsa Abesbatza Irunen sortu zen 1957an. Hainbat lehiaketatan parte hartu du (Cocentaina, Zumarraga, Burgos edo Tolosa) bai nazioarte mailan ere (Gorizzia, La Haya) eta sari ugari lortu izan ditu. Jaialdi garrantzitsutan parte hartu du (Donostia, Donibane Lohitzune, Lourdes, Hondarribia, Valladolid, Cambes edo Pons) eta baita kultur asteetan ere (Bordele eta Valladolid).

Aro ezberdinetako obra polifonikoetan oinarritzen den errepertorioa du eta garrantzi berezia ematen dio Euskal autoreek sortutako korurako musikari. Azken urteetan kontzertu sinfonikoetan parte hartu du errepertorio unibertsala interpretatuz, eta zenbait opera proiektutan ere parte hartu du (*Madama Butterfly* o *Don Pasquale*). Hamaika disko grabatu ditu, horien artean F. Schubert-en *Misa en La b M* (1981) eta Irungo Sara Soto-ri buruzko monografikoan partaidetza (2006) aipagarriak direlarik. Era berean, aipagarria da Lourdes-eko Nazioarteko Musika Jaialdirako egindako A. Lesbordes-en *Misa Festiva*-ren muntaia eta grabazioa. 2008an Jordi Lluis Rigoll konpositorearen *Misa Ametsa* estreinatu eta grabatu zuen Iñaki Etxepare biolontxelo-jotzailearekin batera.

2007an Ametsa Abesbatza Kultur Elkarteak bere sorkuntzaren 50. urtemuga ospatu zuen. Egun, Fernando Etxepare Gómez da bertako zuzendaria.

# SMASH ENSEMBLE

Director Artístico / Zuzendari artistikoa: Bertrand Chavarría-Aldrete
http://www.smashensemble.com/

SMASH Ensemble, junto al Festival Internacional SMASH de Música Contemporánea, son dispositivos de comunicación que pertenecen a la Asociación SMASH, la cual tiene como objetivo crear y difundir la música clásica contemporánea.

SMASH Ensemble se ha presentado en Francia, Lituania, Portugal, Alemania, República Checa, Italia, Finlandia, México y España, dentro de festivales y destacadas temporadas de conciertos. En 2011 nacen tres proyectos importantes que reflejan la vocación por integrar diferentes tendencias artísticas dentro de la música clásica contemporánea: *Pierrot Lunaire/Bunraku*, una puesta en escena de la obra musical de Arnold Schönberg y marionetas japonesas *Bunraku*; *Lengu'entrebescada*, un ciclo de poesía y música inspirado en los trovadores del siglo XII; Academia Ambulante que, a través de diversas actividades, transmite y enseña la música clásica contemporánea a las diferentes estructuras dedicadas a la enseñanza. En 2012 estrena *antecommeDia* (2006-2012), un ciclo instrumental de obras del compositor José Luis Torá inspirado en la *Commedia* de Dante.

Bai SMASH Ensemble, bai Musika Garaikideko Nazioarteko SMASH jaialdia, musika klasiko garaikidea sortzeko eta jakitera emateko xedea duen SMASH elkartearen komunikazio gailuak dira.

SMASH Ensemblek Frantzian, Lituanian, Portugalen, Alemanian, Txekiar Errepublikan, Italian, Finlandian, Mexikon eta Espainian emanaldiak eskaini izan ditu, jaialdi eta kontzertuen denboraldi ezberdinetan. Musika klasiko garaikidearen baitan joera artistiko ezberdinak bateratzeko bokazioa duten hiru proiektu garrantzitsu sortu ziren 2011. urtean: *Pierrot Lunaire/Bunraku*, Arnold Schönbergen obra musikala eta *Bunraku* japoniar txotxongiloak uztartzen zituen eszenaratzea; *Lengu'entrebescada*, XII. Mendeko trobalarietan inspiratutako olerki eta musika zikloa; Academia Ambulante, jarduera ezberdinen bitartez hezkuntzako egitura ezberdinei musika klasiko garaikidea erakutsi eta transmititzea xede duena. 2012an *antecommeDia* (2006-2012) estreinatu zuen, Danteren *Commedian* inspiratutako José Lusi Toráren obren ziklo instrumentala.





Artistas del grupo GAUR; Zumeta, Balerdi, Mendiburu, Oteiza, (Puig), Chillida, Basterretxea, Sistiaga, Amable Arias 1965

# GRUPO GAUR

En mayo de 1966 un colectivo de artistas plásticos se presentó en la galería Barandiarán de San Sebastián como Grupo GAUR, lanzando su manifiesto.

Formaron parte del grupo Eduardo Chillida, Jorge Oteiza, Néstor Basterretxea, José Antonio Sistiaga, Amable Arias, Remigio Mendiburu, Rafael Ruiz Balerdi y José Luis Zumeta.

Musikaste 2016 quiere recordar, con la colaboración de Musikagileak, este nuevo espacio de libertad creativa generada hace cincuenta años mediante un concierto en el que compositores contemporáneos dedican nuevas obras a los miembros del Grupo GAUR, junto con obras basadas en textos y creaciones de los mismos.

"Impresiones en la alta atmósfera" – "Paisaje inquietante",
Films pintados de José Antonio Sistiaga

*"Me dirijo a los sentidos, a la curiosidad, a las emociones de los espectadores, a lo más escondido en ellos, a ellos mismos.
Quítense la venda racionalista de los ojos y gocen serenamente de lo desconocido. No sientan temor, no busquen lo que conocen en el arte, sino aquello que les abra nuevas puertas de percepción"*

José Antonio Sistiaga: "¿Por qué Impresiones en la alta atmósfera está dedicada a Van Gogh?"
(Zumaia: Zelai Aristi, 2008)

1966ko maiatzean, GAUR Taldea izenarekin artista plastiko kolektibo bat Donostiako Barandiarán galerian aurkeztu zen, bere manifestua azalduz.

Bertako kide ziren Eduardo Chillida, Jorge Oteiza, Néstor Basterretxea, José Antonio Sistiaga, Amable Arias, Remigio Mendiburu, Rafael Ruiz Balerdi eta José Luis Zumeta.

Musikagileak-ekin lankidetzan Musikaste 2016-k gogora ekarriko du duela berrogeita hamar urte sortu zen kreazio gune berria, bertan musikagile garaikideek GAUR Taldeko kideei obra berriak eskainiko dizkietelarik, euren obretako testu eta kreazioak abiapuntutzat hartuz.

"Impresiones en la alta atmósfera" – "Paisaje inquietante",
José Antonio Sistiagak margotutako filmeak.

*"Zentzuei zuzentzen naiz, kuriositateari, ikusleen emozioei, beraien alde ezkutuenari, ikusleei beraiei. Kendu begietako benda arrazionalista eta gozatu patxadaz ezezaguna denaz.
Ez beldurrik izan; ez bilatu ezagutzen duzuna artearen barnean, pertzepziorako ate berriak baizik".*

José Antonio Sistiaga: "Zergatik dago Impresioiak goi atmosferan Van Gogh-i eskainita?"
(Zumaia: Zelai Aristi, 2008)

* Estreinaldi nagusia

19 maiatza mayo
Osteguna Jueves

Niessen
Kulturgunea

20:00etan
20:00 horas

# GAUR taldea musikaz

| | |
|---|---|
| Paula Álvarez | Tizas<br>II. Arañando el papel (2016)*<br>Sopranoa, biolina, biolontxeloa |
| Francisco José Domínguez | Vertical (2016)*<br>Sopranoa, perkusioa, pianoa, biolina, biolontxeloa |
| Ramon Lazkano | Wintersonnenwende-2 (2007)<br>Biolontxeloa, pianoa |
| Proyección del film *Impresiones en la alta atmosfera* (1988-89) de José Antonio Sistiaga | |
| Sara Soto | Karraxiz<br>Nestor Basterretxearen testua |
| Diego Parra | Papiros y colores… (2016)*<br>Evocación a la obra de José Luis Zumeta<br>para soprano, piano, percusión, violín y violonchelo |
| Brais Nóvoa | Canción sin título, canción muda (2016)*<br>En homenaje a Remigio Mendiburu<br>Sopranoa, pianoa, perkusioa |
| Bruno Dozza<br>Poema de Alexis Delgado sobre textos de Eduardo Chillida | Con la frente en la noche (2010)<br>Sopranoa, pianoa |
| Proyección del film *Paisaje inquietante*, Nocturno (1991), de José Antonio Sistiaga | |
| Ramon Lazkano | Wintersonnenwende-3 (2009)<br>Pianoa, biolina, biolontxeloa, perkusioa |

## Ametsa Abesbatza

[Maria Martín (Mari); Dario Maya (Idittu); Iker Casares (Ehiztaria); Ainara Hernández (Langilea); Aritz Enparan (Langile); Beste bakarlari: Karmele Etxepare, Juncal Berasategi, Ainara Hernández, Peio Arzak, Félix Esteve, Fermín Etxebeste]
• Fernando Etxepare, zuzendaria

Solistas de SMASH Ensemble
Carola Schlüter, soprano
Natalia Baquero, pianoa
Sisco Aparici,perkusioa
Karolina Michalska, biolina
Orfilia Saiz Vega, biolontxeloa
• Bertrand Chavarria-Aldrete, zuzendaria

# EUSKADIKO KONTSERBATORIOETAKO BIG BAND-AK

El Departamento de Educación del Gobierno Vasco, en el ámbito de sus competencias, ha incorporado a su oferta la posibilidad de canalizar dentro del currículum de Enseñanzas Profesionales de Música la línea formativa de Música Moderna y Jazz, tanto en escuelas de música como en conservatorios profesionales, posibilitando así la atención a estas inquietudes y favoreciendo el paso natural del alumnado a una futura carrera superior de música moderna y jazz. Gracias a este proyecto os enseñamos el resultado.

Hezkuntza Departamentuak, Jazz eta Musika Modernoa ikasi ahal izateko bidea ireki du profesional mailako musika ikasketen curriculum-aren barruan, bai kontserbatorietan eta baita musika eskoletan ere. Modu honetan, jazz musika eta modernoa ikasi nahi duten ikasleen interesei aurre egiteaz gain, goi mailan sartu nahi duten ikasleei oinarrizko hezkuntza bat eskeintzen die. Proiektu honi esker, ona hemen gure erantzuna.

## BILBOKO J.C. ARRIAGA KONTSERBATORIOKO JAZZ TALDEA

**Saxofoiak:** Aicha Chekroun, Carla Bañales, Gorka García, Dana Salgado, Ena Verhorst // **Tronpetak:** Angel Erezuma, Marcel Pastor, Mikel Uriarte // **Tronboiak:** Mikel Torres, Iban Guinea, Imanol Oroquieta // **Perkusioa:** Jone González, Alvaro Ibaibarriaga // **Teklak:** Maite Arregi, Ander Marzana // **Gitarra Elektrikoa:** Daniel Artetxe
**Baxua**: Jon Carranza, Angie López

**Zuzendaria:** Alain Sancho






# DONOSTIAKO FCO. ESCUDERO KONTSERBATORIOKO "EASO JAZZ ORKESTRA"

**Saxofoiak:** Aitor Otegi, Noel Calvo, Aitor Zorzano, Julen Oruesagasti, Ibon Ezkurdia // **Tronboiak:** Beñat Etxabe Loren Loinaz, Imanol Iribarren, Juan Carlos Ribelles // **Tronpetak:** Raul Bautista, Jesus Perez, Asier Sarasola, Aitor Sesma **Biolina:** Irati Sanz // **Gitarra elektrikoa:** Sergio Rodriguez, Patxi Gil // **Pianoa:** Maialen Tellabide **Baxu elektrikoa:** Alberto Garces // **Bateria:** Iker Telleria // **Ahotsa:** Paula Brotons, Maddi Noguera

**Zuzendaria:** Roberto Pacheco

# GASTEIZKO KONTSERBATORIOKO JESÚS GURIDI BIG BAND TALDEAK

## GASTEIZKO KONBOA

**Tronpeta:** Nico Andino // **Saxofoia:** Eolo Andino // **Gitarra:** Markel de Reparaz
**Kontrabaxua:** Jon Mendigutxia // **Bateria:** Aitor Bravo




## GURIDI TXIKI BIG BAND

**Saxofoiak:** Peio Martínez, Miren Legido, Julen Arriolabengoa // **Trompetak:** Irati Martínez García, Alba Rodriguez, Julen Azcona // **Trompa:** Haizea Vallecido // **Piano:** Maite Ruíz // **Gitarra:** Amaia Yoller // **Baxu elektrikoa:** Elena Lezaun
**Bateria:** Jokin Fz. de Bastida

**Zuzendaria:** Josetxo Silguero Gorriti

## GURIDI BIG BAND

**Saxofoiak:** Eolo Andino, Martin Gorospe, Aitor Castillo, Andrea Castaño // **Trompetak:** Xabier Rodriguez, Alejandro Sáez, Nico Andino // **Tuba:** David Pejenaute // **Gitarra elektrikoa:** Markel de Repáraz // **Kontrabaxua:** Jon Mendigutxia
**Bateria:** Aitor Bravo

**Zuzendaria:** Iñigo Ibaibarriaga

* Estreinaldi nagusia

20 maiatza mayo
ostirala viernes

Niessen
Kulturgunea

20:00etan
20:00 horas

# Euskadiko Kontserbatorioetako Big Band-ak

## Gasteizko Konboa

| | |
|---|---|
| Herrikoia; José Barrio, mold. | Banako |

## Gasteizko Guridi Txiki Big Band

• Zuzendaria: Josetxo Silguero Gorriti

| | |
|---|---|
| Medley Jazzy (H. Silver, S. Pottle, B. Joel) | The Preacher / The Muppet Show / It´s Still Rock and Roll to me |

## Gasteizko Guridi Big Band

• Zuzendaria: Iñigo Ibaibarriaga

| | |
|---|---|
| Tom Garling | Then one day I had the Blues |
| Jim Martin | Dear Old Stockholm |

## Bilboko J.C. Arriaga Kontserbatorioko Jazz Taldea

• Zuzendaria: Alain Sancho

| | |
|---|---|
| G. Gershwin / M. Sweeney | Summertime |
| A. C. Jobim / J. Berry | The Girl From Ipanema |
| N. Hefti | Cute |
| H. Hancock / M. Sweeney | Chameleon |
| Travellin' Brothers / A. Sancho | Josephine |

## Donostiako Fco. Escudero Kontserbatorioko "Easo Jazz Orkestra"

• Zuzendaria: Roberto Pacheco

| | |
|---|---|
| Iñigo Peña | Barne Barnean* |
| Iñigo Peña | Euripidean* |
| Iñigo Peña | Equinoccio* |
| Iñigo Peña | Galdezka Haizeari* |



# REZIKLETAS

Espectáculo de calle y percusión en el que cuatro actores-músicos realizan una puesta en escena consistente en un concierto itinerante donde el soporte sonoro es completamente acústico y realizado a partir de materiales reciclados y reutilizados.

La propuesta plantea al espectador la posibilidad de reciclar su propia creatividad y su visión del mundo actual: puedo construir mi entorno.

En base a una creación colectiva proponemos una acción sonora y visual basada en la exploración de límites de actuación en espacios públicos. La partitura habla de la supuesta evolución humana: del instinto al razonamiento.

Kale-ikuskizunean, lau aktore-musikarik perkusio kontzertu ibiltaria eskaintzen dute birziklatutako eta berrerabilitako materialen bidez guztiz akustikoa den soinua sortuz.

Ikusleari bere sormena eta egungo munduari buruz duen ikuspegia birziklatzeko aukera eskaintzen dio ikuskizunak: ikusleak bere ingurunea eraiki dezake.

Sorkuntza kolektibo hau aitzakiatzat harturik, gune publikoetan aritzeko dauden mugen esplorazioan oinarritutako ikusentzunezko jarduera proposatzen da. Partitura gizakiak senetik arrazoibidera izandako bilakaeraz mintzo zaigu.

21 MAIATZA MAYO
LARUNBATA SÁBADO

XABIER OLASKOAGA PLAZA
KOLDO MITXELENA PLAZA
HERRIKO PLAZA

19:00ETAN
19:00 HORAS

# REZIKLETAS

**KALE PERKUSIO IKUSKIZUNA**
**ESPECTÁCULO DE CALLE Y PERCUSIÓN**
San Markos Mankomunitatearen laguntzarekin

**TURUKUTUPA**
Sergio López de Landatxe
Víctor García de la Torre

**Aktoreak**

Sergio López de Landache
Víctor García de la Torre
Iker Barrientos
Bernabé Tebar

**Diseinu grafikoa**

Gotxi / creatta.net

**Atrezzoa eta eszenografia**

Carlos P. Donado. ESKENITEK, S.L.

**Zuzendaria**

Víctor García de la Torre


Iñigo Arizmendi

# ERRENTERIAKO MUSIKA KULTUR ELKARTEKO BANDA - EMKE
# BANDA DE LA ASOCIACIÓN DE CULTURA MUSICAL DE ERRENTERIA - EMKE

La Banda de Música de Errenteria, fundada en el año 1864, ha recibido diversos nombres a lo largo de su historia: Sociedad Filarmónica (1864) y posteriormente Banda Municipal (1923), hasta recibir en el año 1948 su actual denominación.

Han sido sus directores Teodoro Gamón, Hipólito Guezala, José María Iraola, Gabino Zarranz, Valentín Manso, Ignacio Ubiría, José Luis Mate y Aitor Mitxelena, siendo dirigidos asimismo por M. Lorenzo de Reizábal, J.A. Sáinz Alfaro, J.M. Tife Iparragirre, X. Rallo Sagarzazu o J.M. Guezala.

Es poseedora de diversos premios y ha ofrecido conciertos especiales en la Quincena Musical de Donostia (1995 y 1998), Feria Internacional de Burdeos, Lousada - Oporto (2002), o en la sala "La Cigale" de París (2010); en Musikaste desde 1995 hasta el presente; así como con el grupo vasco Oskorri en Astigarraga y Errenteria (2008 y 2014). Organiza desde 1996 un Alarde de Bandas anual. En 2012 EMKE convocó un Concurso Internacional de obras compuestas para banda junto con la Asociación "Musikagileak". Durante el 2015 EMKE celebró con brillantez su 150 aniversario.

Los actuales directores de EMKE son Carlos Rodríguez Albistur y Alain Ayerdi.

Joan den 2014ean 150 urte bete zituen Errenteriako Musika Bandak. 1864. urtean sortua, historian zehar izen ezberdinak jaso izan ditu: "Sociedad Filarmónica" (1864) eta Udal Musika Banda (1923), horrela 1948. urtean orain duen izena hartu zuen.

Bandaren zuzendaritza Teodoro Gamón, Hipólito Guezala, José María Iraola, Gabino Zarranz, Valentín Manso, Ignacio Ubiria, José Luis Mate edo Aitor Mitxelena Rubioren arduerapean egon da; eta zuzendari gonbidatu gisa, M. Lorenzo de Reizábal, J.A. Sáinz Alfaro, J.M. Tife Iparragirre, X. Rallo Sagarzazu edota J.M. Guezala.

Hainbat sari jaso izan ditu eta Donostiako Musika Hamabostaldian parte hartu zuen (1995 eta 1998an), Musikasten 1995etik egun arte; bai eta Oskorri taldearekin Astigarragan eta Errenterian 2008 eta 2014ean. Nazioarte mailan eskaini izan ditu emanaldiak, Bordeleko Nazioarteko Azokan, Lousadan-Oporton (2002) edo Pariseko "La Cigale" antzokian (2010). 1996. urtetik Musika Banden Alardea antolatzen du. 2012an, Nazioarteko Konposizio Lehiaketa antolatu zuen "Musikagileak" elkartearekin batera, eta 2013ko Musikasten, saritutako obra eta euskal konpositoreen artean sailkapen onena izan zuen obra estreinatu zen.

Gaur egun Carlos Rodríguez Albistur eta Alain Ayerdi dira EMKE-ko zuzendariak.

# ERRENTERIAKO UDAL TXISTULARI TALDEA
# BANDA MUNICIPAL DE TXISTULARIS DE ERRENTERIA

La actual Banda Municipal de Txistularis de Errenteria se formó en 2003 tras la celebración de oposiciones y empezó su andadura en julio de ese año. El grupo de txistus lo componen las siguientes personas: Xabier Vesga (txistu 1º), Olatz Oliveri (txistu 2º), Josu Izagirre (silbote) e Iñaki Letamendia (atabal).

La banda de txistularis tiene varias funciones: todos los domingos tocan la diana por los barrios de Errenteria, una vez al mes ofrecen un concierto en la plaza del Ayuntamiento, diana de carnavales, corporaciones, aurresku de la víspera de San Juan, procesión de Magdalenas, gigantes y cabezudos, etc.

Además de estas actividades, también toma parte en otros actos y fiestas de Errenteria. Asimismo participa en los actos organizados por Euskalerriko Txistulari Elkartea, con txistularis de otros pueblos y ayuntamientos.

Errenteriako Udal Txistulari talde berria 2003ko ekainean eginiko oposaketen ondoren sortu zen. Txistu taldea honako hauek osatzen dute: Xabier Vesga (1go txistua eta zuzendaria), Olatz Oliveri (2. Txistua), Josu Izagirre (silbotea) eta Iñaki Letamendia (atabala).

Txistu taldeak eginkizun desberdinak ditu: igandero herriko auzo desberdinetan bere hots gozoaz esnatzen gaituzte, hilean behin kontzertua eskaintzen dute Udaletxeko arkupetan, Inauterietako diana goiztiarrak, korporazioak, San Juan bezperako aurreskua, Madalenetako prozesioak, buruhandi eta erraldoiak, eta abar luze bat.

Ekintza horietaz gain, herriko beste ekintza eta festetan parte hartzen du. Gainera, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak antolatzen dituen ekitaldietan parte hartzen du beste herrialdetako udal txistu eta txistulariekin batera.



Iñigo Arizmendi



# ÓSCAR CANDENDO ZABALA

Tras obtener los títulos de Profesor Superior en las especialidades de Órgano, Piano, Clavicémbalo y Música de Cámara en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, estudia órgano en los conservatorios de Bayona y Pau con Bernadette Carrau y Jesús Martín Moro, sucesivamente. Continúa su aprendizaje en Toulouse con Michel Bouvard y Jan Willem Jansen, en Barcelona con Montserrat Torrent, y en Stuttgart con Bernhard Haas.

Como intérprete obtiene premios en Sevilla (1992) y Santiago de Compostela (1993). Ofrece habitualmente recitales en los festivales más prestigiosos de Europa.

Es coautor, junto a Françoise Clastier, de un estudio: *Órganos Franceses en el País Vasco y Navarra (1850-1925)*, publicado en la Sociedad de Estudios Vascos. Trabaja actualmente en su Tesis Doctoral sobre el compositor Vicente Goicoechea.

Es profesor de Órgano en la Escola Superior de Musica de Catalunya (ESMUC), Organista Titular de El Buen Pastor en San Sebastián y organista del Coro Easo.

Donostiako Goi-Mailako Musika Kontserbatorioko Organo, Piano, Klabizenbalo eta Ganberako Musika irakasle plaza erdietsi ostean, organoa Baiona eta Pauko kontserbatorioetan ikasi zuen, Bernadette Carrau eta Jesús Martín Mororekin, hurrenez hurren. Ikasketekin Toulousen jarraitu zuen Michel Bouvard eta Jan Willem Jansenekin, Bartzelonan Montserrat Torrentekin, eta Stuttgarten Bernhard Haas-ekin.

Interprete gisa, Sevillan (1992) eta Compostelako Done Jakuen (1993) saritua izan zen. Europako jaialdi garrantzitsuenetan emanaldiak eskaintzen ditu.

Françoise Clastierrekin batera ikerketa lana egin zuen *Órganos Franceses en el País Vasco y Navarra (1850-1925)* Eusko Ikaskuntzak argitaratu zuena. Egun, Vicente Goicoechea musikagileari buruzko doktoretza tesia prestatzen ari da.

Escola Superior de Musica de Catalunyako (ESMUC) órgano irakasle da, Donostiako Artzai Onaren Katedraleko organista titularra eta Easo Abesbatzako organo-jotzailea.

## 22 maiatza mayo igandea domingo

10:00etan - 10:00 horas — **DIANA**, Ramón Esnaolaren Goiko-kale biribilketa joaz

10:15ean - 10:15 horas — **ELIZ MUSIKA** Jasokundeko Andre Mariaren eliza
Óscar Candendo, Organoa
Nemesio Otaño — Adagio

10:30ean - 10:30 horas

### MEZA

| | |
|---|---|
| Vicente Goicoechea | Kristo Erregeari [Sarrera] |
| Vicente Goicoechea | Edoctus autem [Ofertorioa] |
| Vicente Goicoechea | Tantum ergo N. 7 (b) [Jaunartzea] |
| Vicente Goicoechea | Karmengo Amari [Bukaera] |
| Luis Urteaga | Final (organoa) [Irteera] |

Errenteriako Andra Mari Abesbatza • Andoni Sierra, zuzendaria • Óscar Candendo, organoa

12:00etan - 12:00 horas - Herriko Enparantzan

### TXISTU EMANALDIA

| | |
|---|---|
| Ramón Modesto Aramburu | Himno a San Martín de Loinaz |
| Ramón Modesto Aramburu | Mendigoizaleen aldaba |
| Ramón Modesto Aramburu | Orripekoa |
| Victoriano Tellería | Asperturik (Zortzikoa) |
| Jose Ignazio Ansorena Miner | Idiazabal [Goiz deia/Kontrapasa/Fandangoa/Arin arina] |
| Ramón Esnaola | Agerre (Biribilketa) |
| Ramón Esnaola | Candido (Zortzikoa) |
| Ramón Esnaola | Dornaldegi (Orripekoa) |
| Ramón Esnaola | Iturbe (Arin arina) |
| Ramón Esnaola | Urretxu (Biribilketa) |
| Hipólito Zubillaga; José Luis Ansorena, mold. | El Touring campeón |

Errenteriako Udal Txistulari Taldea • Xabier Vesga, zuzendaria

12:30ean - 12:30 horas - Foru Plazan

### ERRENTERIAKO MUSIKA KULTUR ELKARTEKO BANDAREN EMANALDIA

| | |
|---|---|
| Pepe Arzelus; J.M. Oiartzabal, mold. | Gaztelubideko Ereserkia [Estreinaldia] |
| Francis Lopez | Fandango Vasco |
| Francis Lopez; E. A. Borda, mold. | Le Chanteur de Mexico (Fantasia-hautaketa) |
| Francis Lopez; R. Martin, mold. | Andalousie (Fantasia) |
| Francis Lopez; M. Fontana, mold. | Méditérranée |
| Francis Lopez; F. Boyer, mold. | L'amour est un bouquet de violettes (*Violetas imperiales* filmaren Vals) |

Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Banda
• J.M. Oiartzabal, zuzendaria [*Gaztelubide* obran]
• Alain Ayerdi Gurpegi, zuzendaria



DATA / FECHA
25 de Mayo 16:00

**MUSIKENEN**

Actividad:
4º Encuentro “En torno a las publicaciones de música en el País Vasco”





musikene






musika
hezkuntza
ERRENTERIA
MUSIKALEKO
TALDEEN
EMANALDIAK
Maiatzak 23, 25 eta 26ean
19:00etan
23, 25 y 26 de mayo
19:00 horas
Xabier Olaskoaga plaza
maiatzak 23 mayo
MUSIKA ETA MUGIMENDUKO IKASLEAK
ESKUSOINU TALDEA
maiatzak 25 mayo
MUSIKA ETA MUGIMENDUKO IKASLEAK
EUSKAL DANTZA
maiatzak 26 mayo
16:00 - 16:45
ABESBATZA ESKOLAN
ANDRAMARI ABESBATZA LANKIDETZAN
MUSIKA ETA MUGIMENDUKO IKASLEAK
BANDA TXIKI
Laguntzailea
errenteriamusikal
Iñigo Arizmendi




# ERRENTERIA MUSIKAL

La enseñanza de la música en Errenteria nace en 1916, de la mano de José Mª Iraola, con dos especialidades instrumentales: una de metal y otra de madera. En 1918 se crea la Academia Municipal de Música. Tras la Guerra Civil la Asociación de Cultura Musical recoge la responsabilidad de la formación musical.

"Errenteria Musical" surgió en 1981 como objetivo fundamental de un grupo de errenteriarras que se propuso poner en marcha un equipamiento cultural de envergadura, siendo sus fundadores los padres y madres de alumnos y alumnas y el Ayuntamiento de Errenteria. Esta academia no era oficial, pero sí reconocida.

En el año 1986 consigue la validez oficial definitiva como Conservatorio de Música de Grado Elemental y en el año 1991 como Conservatorio de Música de Grado Medio.

Con la puesta en marcha de la Ley General del Sistema Educativo, el conservatorio elemental se reconvierte en escuela de música y comienza a funcionar como tal en el curso académico 1993-1994.

Con respecto al grado medio, en el año 2000 se consolida dicha enseñanza en el ámbito del nuevo plan de estudios, siendo actualmente un centro de enseñanzas profesionales de música.

Errenterian 1916an ekin zitzaion musika irakasteari. Hain zuzen ere, José Mª Iraola hasi zen, bi instrumentu-espezialitatetan: metala eta zura. 1918an Udal Musika Akademia sortu zen. Gerra Zibilaren ostean, Musika Kultura Elkarteak hartu zuen Errenteriako musika hezkuntzaren ardura.

"Errenteria Musikal" Musika Akademia 1981ean sortu zen, kultura-ekipamendu sendoa martxan jarri nahi izan zuten errenteriarren talde baten helburu nagusi gisa. Ikasleen gurasoen eta Errenteriako Udalaren artean sortu zuten. Akademia hori ez zen ofiziala, baina aintzat hartzea lortu zuen.

1986. urtean, berriz, Oinarrizko Mailako Musika Kontserbatorioko baliozkotasun ofiziala lortu zuen; eta 1991. urtean, Erdi Mailako Musika Kontserbatorioko behin betiko ofizialtasuna lortu zuen.

Geroago, Hezkuntza Sistemaren Lege Orokorra abian jarri zenean, oinarrizko kontserbatorioa musika-eskola bihurtu eta maila horretako jardunari ekin zion 1993-1994 ikasturtean.

Erdi mailako ikasketei dagokionez, berriz, 2000. urtean, ikasketa hauek plan berrira egokitu ziren eta gaur egun musika irakaskuntza profesionaleko ikastetxea da.

maiatzak 24 25 26 mayo

KONTZERTU
DIDAKTIKOAK
LH-KO
ERRENTERIAKO
IKASLEENTZAT

# Irratia dantzan

*Urtero lez musikaren arlo zehatz bat izango da kontzertu didaktikoaren ardatza. Aurten, dantza aztertu eta landuko dugu: Dantza Klasikoa, Klakea eta Euskal Dantza, hauek baitira musika eskolan ikas daitezkeen dantza estiloak. Dantza mota bakoitza ezagutzeko, kontzertua irratsaio baten moduan antolatuko da. Bertan dantzariak elkarrizketatuko ditugu eta beraien koreografiak erakutsiko dituzte, bai eta bakoitzaren bizipen pertsonalak.*

*Irratsaioa zuzeneko musikaz lagunduta egingo da, eta honela, kontzertuan parte hartuko duten musika tresnak ezagutuko ditugu. Instrumentuek bakarka egingo dituzten parte-hartzeak dantzaren arloarekin edo dantzen jatorriekin zerikusia izango dute.*

*Kontzertuaren irratsaio moduko antolakuntzak irrati beraren jatorria eta hasiera ezagutzea baliatuko du. Hasiera hau ezagutzeari esker musikarekin duen lotura ikusiko dute ikasleek.*
*Kontzertuaren amaieran dantzen eta dantzaren jatorriari buruz, haien arteko antzekotasun eta desberdintasunei buruz eta irratia eta musikaren arteko erlazioari buruz hausnarketa egingo da.*

**INTERPRETATZAILEAK: ERRENTERIA MUSIKAL-EKO IRAKASLEAK**
Marian Bravo, Vanesa Castaño eta Jon Maia, Euskal Dantza // Julene Calvo, Dantza klasikoa
Larraitz Ugartemendia, Klakea Lara Mitxelena, Txalaparta // Itziar Busselo, Txistua
Marixi Sesma, Klarinetea // Javi Fernández, pianoa

**AURKEZPENA ETA GIDA DIDAKTIKOA**
Ana Egiazabal

**IDEIA ETA GIDOIA**
Mikel Cañada

*Irratia dantzan* es el título del concierto didáctico que esta 44 edición de Musikaste presenta para los alumnos y alumnas de Educación Primaria de Errenteria. El concierto es el final de un proceso de sensibilización pedagógica realizado en los centros educativos de Errenteria. En colaboración con Errenteria Musikal, un conjunto de nueve profesores del Centro interpretará la música, con la colaboración de Ana Egiazabal en las tareas de presentación.

Musikaste 44. edizioak Errenteriako Lehen Hezkuntzako ikasleei eskaintzen dien kontzertu didaktikoaren izenburua *Irratia dantzan* da. Errenteriako ikastetxeetan gauzatzen den sentsibilizazio prozesu baten amaiera da kontzertua. Errenteria Musikalekin lankidetzan, Hezkuntza zentro honetako bederatzi irakasleek osatutako talde batek interpretatuko dute eta Ana Egiazabal izango da kontzertu hau aurkeztuko digun ahotsa.

Laguntzailea

musika bulegoa


Iñigo Arizmendi


Iñigo Arizmendi



# ALICIA AMO

Comienza sus estudios de violín en Burgos, obtiene el título superior en Musikene y continúa en la Universität für Musik de Graz, donde comienza sus estudios de canto. Realiza Bachelor y Máster en canto en la Schola Cantorum Basiliensis con G. Türk y A. di Marchi entre otros. También estudia violín barroco y realiza dos Operastudio con P. Maritano y A. Zedda.

Es ganadora de diversos premios en Nápoles, Estrasburgo, Ambronay o Basel siendo elegida por René Jacobs para un estreno en tiempos modernos en la Fondazione Cini (Venecia).

Actúa como solista tanto en ópera como en oratorio junto a Café Zimmermann, Zürcher Kammerorchester, Vokalakademie Berlin, La Cetra Basel, Le Parlement de Musique, Pygmalion Ensemble, o las orquestas de Lugano, Sevilla, Burgos, Bilbao o Reinach bajo la dirección de E. Onofri, A. de Marchi, A. Marcon, M. Gester, G.Paronuzzi, C. Mena, R.Alessandrini, P.Valetti, R.Pichon, J.Cohen, E.L.Banzo o R.Jacobs. Funda junto a A.Mercero Musica Boscareccia y es profesora en la  Academia de Música Antigua (Universidad de Murcia) y Baroque Operastudio (Universidad de Burgos).

Burgosen hasi zituen biolin ikasketak, Musikenen goi mailako titulua eskuratu zuen notarik altuenekin eta Graz-eko Universität für Musik-en ikasten jarraitu zuen, bertan kantu ikasketei ekin zielarik. Kantuko Batxilergoa eta Masterra lortu zituen Schola Cantorum Basiliensis-en ohorezko matrikularekin, G. Türk eta A. di Marchi-rekin beste batzuen artean. Biolin barrokoa ere ikasi zuen eta bi Operastudio egin zituen P. Maritano eta A. Zedda-rekin.

Hainbat sari eskuratu ditu Napoles, Estrasburgo, Ambronay edo Basel-en; Tenerife, Aberdeen edo Clermont-Ferrand-eko lehiaketetan finalera heldu zen eta René Jacobs-ek hautatu zuen Fondazione Cini-n (Venezia) aro modernoko estreinaldia egiteko.

Hainbat talderekin Operan nahiz Oratorioan bakarlari gisa aktuatu izan du: Café Zimmermann, Zürcher Kammerorchester, Vokalakademie Berlin, Orchestra di Lugano, La Cetra Basel, Le Parlement de Musique, Pygmalion Ensemble, edo Sevilla, Burgos, Bilbao, Reinach-eko orkestrekin, honako zuzendariekin:  E. Onofri, A. de Marchi, A. Marcon, M. Gester, G.Paronuzzi, C. Mena, R.Alessandrini, P.Valetti, R.Pichon, J.Cohen, E.L.Banzo edo R.Jacobs. Musica Boscareccia sortu zuen  A.Mercero-rekin batera eta AIMAntiqua-ko, Academia de Música Antigua-ko (Murtziako Unibertsitatea) eta Baroque Operastudio-ko (Burgoseko Unibertsitatea) irakasle da.



# JAGOBA FADRIQUE

Ha estudiado canto con Almudena Ortega, Ángeles Chamorro y Manuel Cid, recibiendo clases magistrales de Félix Lavilla, Kym Amps, Isabel Penagos y Britta Sundberg. Ha realizado cursos en Dirección Coral con T. Brown, H. Stureborg, C. Pavese y C. Høgset, dirigiendo varios grupos profesionales tanto en España como en el extranjero. Ha cantado en el Orfeón Donostiarra, Coro Joven de Europa, Coro de Cámara de Madrid, Coro de RTVE, Coro de Cámara del Palau de la Música Catalana, Capilla Peñaflorida o Chœur de Chambre de Namur.

En 2005 se trasladó al Reino Unido, donde trabaja la voz con Jeremy White y Deborah Miles-Johnson. Desde 2009 es Director Asociado del Coro Cervantes en Londres. Como solista, tanto de ópera como de oratorio y lied, ha participado en los festivales como la Quincena Musical, Ibero-American Music Festival (Londres), Festival Internacional de Música en Jeonju (Corea del Sur), o en el Song in the City of London.

Ha cantado en numerosos escenarios junto a la Orquesta de Cámara Aita Donostia, Orquesta Barroca de Madrid, Orquesta Sinfónica de RTVE y la Orquesta Sinfónica de Bilbao, bajo la dirección de maestros como Laszlo Heltay, Johan Duijck, Ignacio Yepes, Carlos Aransay, Juanjo Mena o Grover Wilkins.

Ha participado en retransmisiones y en la grabación de discos para sellos como RTVE Música, NB Musika y Signum Records.

A. Ortega, Á. Chamorro eta M. Cidekin ikasi du, eta F. Lavilla, K. Amps, I. Penagos eta Br. Sundbergen ikasgai magistralak jaso izan ditu. Koru Zuzendaritzako ikastaroak egin ditu T. Brown, H. Stureborg, C. Pavese eta C. Høgsetekin, eta talde profesionalak zuzendu izan ditu. Donostiako Orfeoian, Europako Koru Gaztean, Madrilgo Ganbera Abesbatzan, RTVEeko Koruan, Palau de la Música Catalana Ganbera Abesbatzan, Capilla Peñafloridan eta Choeur de Chambre de Namuren abestu izan du.

Erresuma Batura joan zen 2005ean, eta bertan ahotsa J. White eta D. Miles-Johnosonekin landu zuen. 2009az geroztik, Londoneko Coro Cervanteseko Zuzendari Elkartua da. Bakarlari gisa, Donostiako Musika Hamabostaldian, Ibero-American Music Festival-ean (London), Jeonju-ko Nazioarteko Musika Jaialdian (Hego Korea) edo Londoneko Song in the City jaialdietan parte hartu izan du.

Aita Donostia Ganbera Abesbatzarekin, Madrilgo Orkestra Barrokoarekin, RTVEko Orkestra Sinfonikoarekin eta Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin hainbat aretotan abestu du, L. Heltay, J. Duijck, I. Yepes, C. Aransay, J. Mena edo Gr. Wilkins-en zuzendaritzapean.

Emankizun askotan eta RTVE Música, NB Musika eta Signum Records zigiluen diskoen grabaziotan parte hartu izan du.



# MARIFÉ NOGALES

Nacida en Andoain, realiza sus estudios superiores de canto en Musikene. Ha actuado en diversos festivales bajo la batuta de directores como Jesús López Cobos, Miquel Ortega, Friedrich Haider, Alberto Zedda, Lutz Köler, Eduardo López Banzo, Renato Palumbo, Teodor Currentzis, Giuseppe Finzi o José Ramón Encinar.

Ha interpretado los roles de Flora (*Traviata*), Magdalena (R*igoletto*), 2ª dama (*Die Zauberflöte*), Zerlina (*Don Giovanni*), Dorabella (*Cosí fan tutte*), Dido (*Dido y Eneas*) o Magdalena y Melibea (*Il Viaggio a Reims*). Destaca su participación en el estreno de la ópera *La casa de Bernarda Alba* de Miquel Ortega y su debut en el Teatro Real de Madrid en la ópera *L'italiana in Algeri* bajo la dirección de Jesús López Cobos y Joan Font.

Ha grabado la ópera *Otello* de Verdi bajo la dirección de Friedrich Haider. Tiene previstas actuaciones en Madrid, Sevilla, Oviedo, Mahón y Lisboa. En junio actuará en el Festival de Granada, y en marzo de 2017 debutará en el Teatro Liceo de Barcelona con la ópera *Thaïs* de Massenet y volverá al Teatro Real de Madrid para interpretar *Madama Butterfly* de Puccini.

Beasainen jaio zen 1916an. Txistuarekiko zaletasun eta tradizio handiko familiako kide zen, bere aita Beasaingo Bandako lehen txistularia izan zelarik 1900tik aurrera. Beasaingo Udal Txistu Bandako kide izan zen, 1951tik aurrera bertako zuzendaria izan zelarik. Goierri eskualdeko hainbat belaunaldietako txistu ikasleen irakasle izan zen. Beasainen zendu zen 1990ean.

## ARZELUS, Pepe

José Antonio Arzelus Igarzábal nace en 1937 en Gabiria (Gipuzkoa). A los 11 años se hace cargo del puesto de organista de la Parroquia de Gabiria, por fallecimiento de su padre, también organista, cargo que ejerció durante 17 años.

Realizó los estudios de solfeo, piano y órgano con José Luis Gurrutxaga, director de la Banda de Música de Ordizia. Convalidó los estudios de piano en el Conservatorio Municipal de Donostia-San Sebastián.

Durante 26 años ejerció de organista en la Parroquia de Nuestra Señora de la Asunción de Tolosa. Desde el año 2002 es pianista acompañante del “Orfeón de la Castaña” de la Sociedad Gaztelubide de San Sebastián.

José Antonio Arzelus Igarzábal 1937an Gabirian (Gipuzkoa) jaio zen. 11 urte zituela Gabiriako Parrokiako organo-jotzaile postua lortu zuen bere aitaren heriotzagatik. Bere aita ere organo-jotzailea izan zen Gabiriako Parrokian 17 urtez.

Solfeo, piano eta organoko ikasketak Ordiziako Musika Bandako zuzendaria zen José Luis Gurrutxagarekin egin zituen. Pianoko ikasketak Donostiako Udal Kontserbatorioan baliozkotu zituen.

26 urtez Tolosako Jasokundeko Andre Mariaren Parrokian organo-jotzaile aritu zen. 2002 urtetik aurrera Donostiako Gaztelubide Elkarteko “Orfeón de la Castaña” taldeko pianista laguntzailea da.

## AZURMENDI, Idoia

Nace en Azpeitia en 1971. Realizó sus estudios en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián. Es titulada superior en Educación Musical, Dirección de Coro, Pedagogía Musical, Musicología y Composición. Vinculada al ámbito coral ha particiado en los conjuntos Antxieta Gazteak, Amalda Abesbatza, Gipuzkoako Gazte Abesbatza y Kanta Cantemus Korua. Hoy en día es cantora de Aqua Lauda.

Fue premiada el año 2008 en el concurso Kanta Berri celebrado en Biarritz con la obra *Dorre Mendi*. Su obra *Esperantzari leiho bat* ha sido obligada el año 2014 en el Certamen Internacional de Masas Corales de Tolosa.

1971n Azpeitian jaioa. Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan egin zituen bere ikasketak. Hezkuntza Musikala, Koru Zuzendaritza, Musika Pedagogia, Musikologia eta Konposaketan goi tituluduna. Abesbatzen munduari lotua, hainbat abesbatzetako partaide, Antxieta Gazteak, Amalda Abesbatza, Gipuzkoako Gazte Abesbatza, Kanta Cantemus Korua, esaterako. Gaur egun Aqua Lauda abesbatzan abesten du.

2008. urtean Biarritzen egiten den Kanta Berri lehiaketan saritua izan zen *Dorre Mendi* obrarekin. 2014an Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan *Esperantzari leiho bat* obra behartua izan zen.

## AZURZA, David

http://www.oihuhau.com/

Nace en Tolosa (Gipuzkoa) en 1968. Licenciado en Bellas Artes. Se forma como contratenor con Isabel Álvarez. Premio extraordinario “Lucrecia Arana” de canto en el Conservatorio Superior de Madrid.

Es miembro de los grupos vocales Capilla Peñaflorida (música antigua) y KEA (contemporánea). Ha trabajado con infinidad de grupos vocales, instrumentales y orquestales en otros tantos proyectos dentro y fuera de nuestras fronteras. Ha realizado y participado en diversos estrenos absolutos y primeras grabaciones de óperas contemporáneas de Tomás Marco (2003), Mauricio Sotelo (2006), Eduardo Pérez Maseda (2006), José Mª Sánchez Verdú (2007), Luis de Pablo (2010), Pilar Jurado (2011), Juan José Eslava (2011). Compositor autodidacta, su actividad se centra exclusivamente en el ámbito vocal. Más de 80 obras editadas, desde arreglos corales, composiciones propias, cuentos musicales y una ópera de cámara (*Altzoko Haundia, txikien opera*, 2011) en Oihu hau Musika, el sello editorial creado por él en 2004 para difundir su obra.

Tolosan (Gipuzkoa) jaio zen 1968an. Arte Ederretan lizentziatua da eta kontratenore ikasketak Isabel Álvarezekin egin zituen. Madrilgo Goi Mailako Kontserbatorioan kantuko “Lucrecia Arana” saria jaso zuen.

Capilla Peñaflorida (antzinako musikan espezializatuak) eta KEA (musika garaikidea) taldeetako kide da. Abesbatza, talde instrumental eta orkestrekin kolaborazioak egin ditu, Euskal Herrian eta atzerrian. Zenbait operen estreinaldi absolutu eta grabaziotan protagonista paperak izan ditu: Tomas Marcorena (2003), Mauricio Sotelorena (2006), Eduardo Pérez Masedarena (2006), José Mª Sánchez Verdúrena (2007), Luis de Pablorena (2010), Pilar Juradorena (2011) eta Juan José Eslavarena (2011). Bere kabuz ikasi duen konpositorea da, ahotsetarako musikara mugatzen da bere lana gehien bat. Bere obrak ezagutzera emateko 2004 urtean Oihu hau argitaletxea sortu zuen, 80 obra baino gehiago editatu dituelarik: korurako moldaketak, bere konposizioak, ipuin musikalak eta ganberarako opera bat (*Altzoko Haundia, txikien opera,* 2011).

## BUSTO, Javier

http://www.bustovega.com/

Nace en Hondarribia en 1949. Licenciado en Medicina y Cirugía por la Universidad de Valladolid. De formación musical autodidacta, comienza su actividad coral animado por el Maestro Erwin List.

Ha sido director del Coro Ederki en Valladolid (1971-1976); fundador y director del Coro Eskifaia en Hondarribia (1978-1994); fundador y director del coro Kanta Cantemus Korua (1995-2007) y de Aqua Lauda (2014- ). Sus obras como compositor se editan en el País Vasco, Alemania, EEUU, Francia, Reino Unido y Suecia. Ha sido invitado como director y jurado a diferentes festivales y concursos en Alemania, Argentina, Bélgica, Canadá, España, EEUU, Francia, Hungría, Italia, Japón, Suecia y Venezuela.

1949an Hondarribian jaioa. Valladolideko Unibertsitatean medikuntzan lizentziatua da. Musika hezkuntzan autodidakta izanik, Erwin List maisuarekin hasi zen abesbatzen munduan.

Ederki abesbatzaren zuzendaria (euskal abeslariz osatutako abesbatza), Valladoliden (1971-1976). Eskifaia Abesbatzaren sortzaile eta zuzendaria, Hondarribia (1978-1994). Kanta Cantemus (1995-2007) eta Aqua Lauda (2014- ) koruen sortzaile eta zuzendaria izan da, Gipuzkoan. Bere abesbatza lanak Euskal Herrian, Alemanian, Estatu Batuetan, Britainia Handian eta Suedian argitaratzen dira. Zuzendari gonbidatua izan da Alemania, Argentina, Belgika, Estatu Batuak, Espainia, Frantzia, Hungaria, Italia, Japonia, Kanada, Suedia eta Venezuelan.

## CASTRO, Rafael

Nace en Villarcayo (Burgos) en 1936. Estudia piano, armonía y composición en el Conservatorio de Bilbao, continuando sus estudios de composición musical con Fernando Remacha en Pamplona. Entre 1965 y 1966 perfecciona sus estudios con Harald Genzmer y Günter Bialas en Munich; al año siguiente estudia con André Jolivet, O. Messiaen y Dutilleux en París. Tras su vuelta, en 1970, logra por oposición la plaza de catedrático de armonía y composición del Conservatorio J.C. Arriaga de Bilbao, centro en el que ha desarrollado gran parte de su vida profesional como docente. También ha impartido clases de Historia de la Música en el instituto piloto de la Universidad de Lejona, así como en la Facultad de Filosofia y Letras de la Universidad de Deusto.

Como compositor, ha recibido encargos de la Quincena Musical y de la Orquesta Sinfónica de Euskadi. En 1965 logra un premio en el I Festival de Canción Vasca de Bilbao. De su catálogo destacan las obras de música de cámara instrumental, la ópera *Eddy. Edgar Allan Poe*, sobre texto de A. Sastre, así como las obras basadas en textos literarios de G. Aresti, B. de Otero, F.G. Lorca y otros escritores.

Villarcayon (Burgos) jaio zen 1936an. Piano, harmonia eta konposizio ikasketak egin zituen Bilboko Kontserbatorioan, eta Fernando Remacharekin jarraitu zituen Iruñean. 1965 eta 1966 artean Munichen sakondu zituen ikasketak Harald Genzmer eta Günter Bialas irakasleekin. Hurrengo urtean, berriz, Parisen aritu zen André Jolivet, O. Messiaen eta Dutilleuxekin. Handik itzulita, 1970ean J.C. Arriaga Bilboko Kontserbatorioan harmonia eta konposizioko katedra lortu zuen, eta han egin zuen bere irakasle bizitzarik gehiena; dena den, Leioako Unibertsitateko institutu pilotuan eta Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letren Fakultatean ere eman izan ditu Musikaren Historiari buruzko klaseak. Konposizio enkarguak ere jaso ditu Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Donostiako Musika Hamabostalditik, esaterako. 1965ean Bilboko Euskal Kantaren I. Jaialdian saria lortu zuen.

Egin dituen obra guztien artean batez ere ganbera musikarako obra instrumentala bereizten da, A. Sastreren testuan oinarritutako *Eddy. Edgar Allan Poe* opera eta Aresti, Blas de Otero, García Lorca eta beste idazle batzuen idatzietan oinarritutako musika-lanak.

## DOMÍNGUEZ, Francisco José

Obtuvo el título superior de viola en Musikene con David Quiggle y Natasha Twitch. En el ámbito de la composición recibió clases y clases magistrales de Gabriel Erkoreka, Helmut Lachenmann, Ramon Lazkano, Héctor Parra, Rebecca Saunders, entre otros.

Ha sido galardonado con el primer premio en la VII edición del Concurso Internacional de Composición "Francisco Escudero", el segundo premio en la VIII edición del Concurso Internacional de Composición "Durango Hiria", la I edición del Concurso Internacional de Composición "Nooa Project" y la Mención Honorífica Juan Crisóstomo de Arriaga en la XXVI edición del Premio para jóvenes compositores de la fundación SGAE. Actualmente estudia composición en Musikene con Gabriel Erkoreka.

Biolako goi titulua erdietsi zuen Musikenen, David Quiggle eta Tatasha Twitch-ekin. Konposizioari dagokionean, beste batzuen artean, Gabriel Erkoreka, Helmut Lachenmann, Ramon Lazkano, Héctor Parra eta Rebecca Saunders izan zituen irakasle.

Nazioarteko "Francisco Escudero" konposizio lehiaketaren VII. edizioko lehen saria irabazi zuen, Nazioarteko "Durango Hiria" konposizio lehiaketaren VIII. edizioan bigarren saria eskuratu zuen, Nazioarteko "Nooa Project" konposizio lehiaketaren I. edizioa eta SGAE fundazioaren musikagile gazteentzako sariaren XXVI. edizioan ohorezko aipamena jaso zuen. Egun, Gabriel Erkorekarekin konposizioa ikasten ari da Musikenen.

## DONOSTIA, P. José Antonio de

Nació en 1886 en San Sebastián. Su nombre laico era José Gonzalo Zulaica Arregui. Merced a la gran tarea que realizó desde su juventud por la música vasca, pasó a ser nominado popularmente "Aita Donostia". Tuvo como primer maestro de composición a Ismael Echazarra, durante su estancia de estudiante en el Colegio de Lecaroz. Continuó estudios con Bernardo de Gabiola en San Sebastián y con Adrià Esquerrá en Barcelona.

En 1920 y 1921 estudió en París con Eugène Cools, quien dejó en él una gran huella. Aunque prestó una atención especial a la composición de música sacra con una técnica depurada y moderna, se popularizaron más sus partituras orfeónicas vascas y sus *Preludios Vascos* para piano.

Sus trabajos etnomusicológicos le convirtieron en un profundo expositor de teorías sobre el folklore vasco y otros temas musicológicos. Su Obra Musical ocupa doce tomos editados y su Obra Literario-Musical abarca nueve tomos, en los que está incluído su *Cancionero Vasco*. Su patrimonio musical abarca todos los géneros y entre ellos compuso muchas partituras de lied en catalán, castellano, francés y euskera. Falleció en Lecaroz en 1956.

## AITA DONOSTIA

Donostian jaio zen 1886an. José Gonzalo Zulaika Arregi izen laikoa zuen. Oso gaztetik euskal musikarengatik burutu zuen lan itzela zela medio, guztiek "Aita Donostia" deitzen zioten. Ismael Echazarra izan zen bere lehenengo irakaslea Lekarozeko Ikastetxean. Bernardo de Gabiolarekin Donostian eta Adrià Esquerrá-rekin Bartzelonan sakondu zituen ikasketak.

1920an eta 1921ean, beregan eragin handia izan zuen Eugène Coolsekin ikasi zuen Parisen. Teknika zaindu eta modernoz musika sakratuari arreta berezia eskaini bazion ere, orfeoirako euskal musikak eta pianorako *Euskal Preludioek* izan zuten arrakastarik handiena.

Egin zituen lan etnomusikologikoengatik, euskal folklorearen eta beste hainbat gairen erakusle sakona bihurtu zen. Hamabi ale argitaratu dira bere musika-lanez eta beste 9 ale musika eta literatur-lanez, horien artean *Cancionero vasco* bilduma. Genero guztietako musika-lanak idatzi ditu eta horien artean Lied-partitura ugari sortu zituen katalanez, gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz. Lekarozen hil zen 1956 urtean.

## DOZZA, Bruno

Nace en 1965 en Milán, donde estudia piano con Carla Weber Bianchi y composición con Vittorio Fellegara. Desde 1993 reside en Madrid. En 2002 es seleccionado como compositor residente en la Academia de España en Roma. Su catálogo se compone de obras de cámara y sinfónicas, estrenadas por agrupaciones e intérpretes como el Plural Ensemble, el Zahir Ensemble, el Trío Alborada, el Scharoun Ensemble de Berlín, el Moscow Contemporary Music Ensemble, la Württemberg Chamber Orchestra, la Orquesta Sinfónica de Castilla y León, los pianistas Claudio Martínez Mehner, Alberto Rosado, Eldar Nebolsin, Alexis Delgado y los guitarristas Jürgen Ruck y Elena Càsoli. Como docente ha trabajado en el Conservatorio Superior de Música de Córdoba, el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid y, en la actualidad, es profesor de Creación Musical y Análisis del Grado en Creación Musical de la Universidad Europea de Madrid.

Milanen jaio zen 1965ean eta bertan Carla Weber Bianchirekin pianoa ikasi zuen eta konposizioa Vittorio Fellegararekin. 1993az geroztik Madrilen bizi da. 2002an Espainiako Akademiako Erromako konpositore egoiliar gisa hautatua izan zen. Bere katalogoan obra sinfonikoak eta ganberakoak aurki ditzakegu. Bere lanak hainbat taldek estreinatu eta interpretatu izan dituzte: Plural Ensemblek, Zahir Ensemblek, Trío Alboradak, Berlineko Scharoun Ensembleak, Moscow Contemporary Music Ensembleak, Württemberg Chamber Orchestrak, Gaztela eta Leoneko Orkestra Sinfonikoak. Honako pianistek ere interpretatu izan dituzte bere lanak: Claudio Martínez Mehner-ek, Alberto Rosadok, Eldar Nebolsinek, Alexis Delgadok eta Jürgen Ruck eta Elena Càsoli gitarristek ere bai. Irakaskuntzari dagokionean, Kordobako Goi-Mailako Musika Kontserbatorioko eta Madrilgo Goi Mailako Musika Kontserbatorio Errealeko irakasle izan da, eta egun Madrilgo Europar Unibertsitateko Musika Sorkuntza eta Analisiko irakasle da Musika Sorkuntzako Graduan.

## EGIGUREN, Jesús

Nace en Durango (Bizkaia) en 1945. Realiza estudios de Piano y Composición en el Conservatorio Juan C. Arriaga de Bilbao. Amplía su formación en Munich. Ha estado siempre muy vinculado al mundo coral en todas sus facetas. Ha sido director del Orfeón de Durango y profesor en el conservatorio “Bartolome Ercilla” de la localidad.

Como compositor ha obtenido algunos premios que le acreditan su valía. La obra *Antífona* fue ganadora del Premio Segorbe en 1987 y fue estrenada por el Coro Eskifaia, bajo la dirección de Javi Busto, al año siguiente. Ha sido “obra obligada” en el Certamen de Masas Corales de Tolosa; y, en la actualidad, tiene tres versiones grabadas en CD: la del Coro Gaudeamus de Cuba, la de The Scholars de Inglaterra y la de Doinuzahar de Durango. Se basa en el texto de la Liturgia del Corpus Christi.

Durangon jaio zen 1945ean. Piano eta Konposizio ikasketak Bilboko Juan Crisostomo Arriaga Kontserbatorioan egin zituen. Munichen sakondu zituen ikasketak. Betidanik abesbatzen mundura oso lotuta egon da alor desberdinetan. Urte askotan Durangoko Orfeoiaren zuzendaria izan da eta Durangoko "Bartolome Ercilla" Musika Kontserbatorioko irakaslea.

Musikagile bezala sari desberdinak jaso ditu. *Antífona* obrak Segorbe Saria lortu zuen 1987an eta hurrengo urtean Eskifaia Abesbatzak estreinatu zuen Javi Bustoren zuzendaritzapean. Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan derrigorrezko obra izan da eta momentuz grabaturiko hiru bertsio ditu: Kubako Gaudeamus Abesbatzarena, Ingalaterrako The Scholars-ena eta Durangoko Doinuzahar Abesbatzarena. Obra hori Corpus Christiko Liturgiaren testuan oinarritzen da.

## ELBERDIN, Josu

http://elberdin.com/

Nace en Pasaia (Gipuzkoa) en 1976. Ha realizado estudios de piano, canto y armonía. Es también Diplomado Social por la UPV. Se dedica profesionalmente a la enseñanza musical en la Escuela Municipal de Música de Pasaia, la dirección de varios coros y es organista de la parroquia de Nª Sra. del Carmen en Trintxerpe (Gipuzkoa).

Imparte de forma regular cursos relacionados con la música coral infantil. Ha obtenido premios en diversos concursos corales y ha recibido encargos tanto del Certamen de Masas Corales de Tolosa como de un progresivo número de corales de diversos países.

Si bien su música está centrada en el ámbito infantil, y en general en la música coral, cuenta también con una importante producción de obras de carácter sinfónico, pop-rock o instrumental.

1976an jaio zen Pasaian (Gipuzkoa). Pianoa, kantua eta harmonia ikasi ditu. Gizarte Diplomatua da EHUn. Pasaiako udal musika eskolako musika irakasten du, hainbat abesbatza zuzentzen ditu eta Trintxerpeko (Gipuzkoa) Karmengo Ama parrokiako organista da.

Haurren koru musikaren inguruko ikastaroak eskaini izan ditu. Hainbat abesbatzaren lehiaketetan sari ugari lortu ditu eta Tolosako Abesbatzen Lehiaketarako enkarguak jaso izan ditu, bai eta hainbat herrialdetako abesbatzenak ere.

Bere jarduera haurrentzako musikan eta bereziki abesbatzentzako musikan oinarritzen bada ere, musika sinfoniko, pop-rock edo musika instrumental generoetako obra ugari idatzi ditu.

## ESLAVA, Hilarión

Nace en Burlada (Navarra) en 1807. Fue infante de la Catedral de Pamplona, donde realizó los estudios musicales con Mateo Jiménez y Julián Prieto, logrando en 1823 una capellanía como instrumentista de violín y contrabajo. En 1827 amplía estudios de composición con Francisco Secanilla. En 1828 gana las oposiciones al magisterio de capilla en Burgo de Osma. Se presenta a las oposiciones para Maestro de Capilla en la catedral de Sevilla, plaza que consigue en 1832. Se ordena sacerdote en el mismo año. En 1844 obtiene la plaza de director de la Real Capilla en Madrid como supernumerario sin sueldo. En 1847 logra finalmente la plaza de pleno derecho.

La actividad musical de Hilarión Eslava en Madrid cubre tres importantes facetas. Es compositor de cerca de dos centenares de obras, obligado por su cargo en la Real Capilla. Es pedagogo, profesor en el Real Conservatorio. Entre sus frutos destacan el *Método de Solfeo*, y la *Escuela de Composición* (Armonía; Contrapunto y Fuga; Melodía y discurso musical; Instrumentación). Dos obras magnas le avalan como precursor hispánico de la musicología, la *Lira Sacro Hispana* (1852-1860) y el *Museo Orgánico Español* (1855). Fue asimismo fundador y director de la Gaceta Musical de Madrid. Fallece en Madrid en 1878.

Burlatan (Nafarroa)  jaio zen 1807an. Iruñeko Katedraleko infante aukeratu zuten, eta han egin zituen musika ikasketak Mateo Jiménez eta Julián Prietorekin. 1823an kapilau postua lortu zuen biolin eta kontrabaxuarekin. 1827. urtean konposizio ikasketak osatu zituen Francisco Secanillarekin. 1828. urtean Kapera-Maisutzarako oposaketak irabazi zituen Burgo de Osman. Sevillako katedralerako kapera-maisutzarako oposaketak egin zituen, eta 1832ean lortu zuen plaza. Urte horretan bertan apaiz ordenatu zen. 1844an Errege Kaperaren zuzendari plaza lortu zuen, soldatarik gabeko supernumerario gisa, eta 1847an plaza hori eskubide osoz eskuratu zuen.

Hilarion Eslavak Madrilen hiru arloren inguruan burutu zuen bere jarduera musikala: Errege Kaperan izan zuen kargua zela eta berrehun bat lan idatzi zituen; Errege Kontserbatorioko irakaslea izateagatik, pedagogo ere izan zen. Azken alderdi horren emaitza dira, batetik, Solfeorako idatzi zuen *Metodoa* eta bestetik, *Escuela de Composición* izeneko metodoa. Musikologiaren arloan Hispaniako aitzindari bezela *Lira Sacro Hispana* (1852-1860) eta *Museo Orgánico Español* (1855) obrak idatzi zituen. Horretaz gain, Madrilgo Gaceta Musical aldizkariaren sortzaile eta zuzendari izan zen. Madrilen hil zen 1878. urtean.

## ESNAOLA, Ramón

Nace en Urretxu en 1916. Su formación musical está vinculada a la Banda de Música de Beasain y a su director Pedro Iguain, así como a la Banda de Zumárraga, donde actuó antes y después de la guerra. Formó parte también de la Banda de Urretxu así como de varias orquestas y conjuntos de baile. Fue profesor de txistu en la Academia Secundino Esnaola de Zumárraga. Es autor de música para txistu. Fallece en Urretxu en 2013.

Urretxun jaio zen 1916an. Bere musika hezkuntzan Beasaingo Musika Bandak eta bertako zuzendaria zen Pedro Iguainek eragin handia izan zuten. Zumarragako Bandan ere parte hartu zuen gerraren aurretik eta ondoren ere bai. Urretxuko Bandako kide ere izan zen eta hainbat orkestra eta dantzarako musika taldetan parte hartu zuen. Zumarragako Secundino Esnaola Akademiko txistu irakasle izan zen. Txisturako Musika ere konposatu izan zuen. Urretxun hil zen 2013an.

## GARAT, Pierre-Jean

Nace en Burdeos en 1762. Estudia canto en Bayona, en Burdeos con Franz Beck y en París a partir de 1782. Asiduo de los salones parisinos y con el sobrenombre de “El Orfeo de Francia” fue asiduo a la corte de la Versalles prerrevolucionaria cantando ante Maria Antonieta. Viajó por Alemania, Holanda, Bélgica, España e Inglaterra, volviendo a París en 1794. Aparece en los *Concerts Feydeau* a partir de 1795, aunque desarrollaba su labor interpretativa en los salones privados. Fue profesor de canto en el Conservatorio de París entre 1796 y 1823. Fallece en París en 1823.

Bordelen jaio zen 1762an. 1782tik aurrera kantu ikasketak Baionan, Bordelen (Franz Beck-ekin) eta Parisen egin zituen. Pariseko aretoetan ohikoa, “El Orfeo de Francia” ezizenez ezagutua zen, eta iraultzaren aurreko Versaillesseko gortean maiz ibili zen, Maria Antonietaren aurrean ere abestu izan zuelarik. Alemania, Holanda, Belgika, Espainia eta Ingalaterran zehar bidaiatu zuen, 1794an Parisera itzuli zelarik. 1795az geroztik *Concerts Feydeau*-etan azaldu zen, nahiz gehienetan areto pribatuetan ibiltzen zen. Pariseko Kontserbatorioko kantuko irakasle izan zen 1796 eta 1823 bitartean. Parisen hil zen 1823an.

## GAZTAMBIDE, Joaquín

Nace en Tudela en 1822. Inició sus estudios musicales con Pablo Rubla, maestro de capilla de la Catedral de Tudela, continuándolos en Pamplona con José Guelbenzu en piano y Mariano García en composición, contrapunto y fuga, y en Madrid con Pedro Albéniz en el piano y Ramón Carnicer en composición. Fue contrabajista en diversas orquestas de teatro (inicialmente en Pamplona y en Madrid de las del Príncipe, de la Cruz y del Circo), además de maestro de coro en compañías de ópera y director de orquesta. En 1846 es nombrado director de los coros del teatro de la Cruz. En 1849 estrenó *La mensajera*, la primera de sus 46 obras líricas. Sus zarzuelas figuran entre los títulos más exitosos del género en el siglo XIX. Compuso además obras para orquesta, música de cámara y música religiosa. Dirigió en el verano de 1868 la orquesta de la Sociedad de Conciertos. Fue también empresario, formando una compañía de zarzuela con la que realizó en 1868-69 actuaciones en Cuba y México. A su vuelta, fallece en Madrid en 1870.

Tuteran jaio zen 1822an. Musika ikasketak Pablo Rubla, Tuterako katedraleko kaperako maisuarekin, hasi zituen. Iruñean pianoa José Guelbenzurekin ikasten jarraitu zituen, eta konposizioa, kontrapuntua eta fuga Mariano Garcíarekin. Ikasketak Madrilen jarraitu zituen Pedro Albénizekin pianoan eta Ramón Carnicerekin konposizioan. Hainbat antzokitako orkestretako kontrabaxua izan zen (hasieran Iruñean eta Madrilgo Principe, De la Cruz eta Circo antzokietan), eta operako konpainietako maisu izan zen, bai eta orkestrako zuzendari ere. De la Cruz antzokiko koruetako zuzendari izendatu zuten 1846an. 1849an *La mensajera* estreinatu zuen, berak egindako 46 obra lirikoetatik lehena. Bere zarzuelak XIX. mendeko zarzuelako titulurik arrakastatsuen artean kokatzen dira. Orkestra, ganbera musika eta erlijio musika obrak konposatu zituen. Sociedad de Conciertoseko orkestra zuzendu zuen 1868ko udaran. Enpresaria ere izan zen, eta 1868-69 urte bitartean Kuba eta Mexikon zehar emanaldiak eskaini zituen zarzuela konpainia sortu zuen. 1870ean Madrilera itzuli zenean zendu zen.

## GOICOECHEA, Vicente

Nace en Ibarra de Aramayona (Álava) en 1854. Estudió piano al mismo tiempo que cursaba los estudios universitarios. En 1881 obtuvo el título de notario. Más tarde sintiéndose llamado al sacerdocio, cursó toda la carrera eclesiástica en el Seminario de Valladolid. En 1890 obtuvo, mediante oposiciones, el cargo de maestro de capilla de la Catedral de dicha ciudad. Su único maestro fue F. Gorriti, con quien estudió contrapunto y fuga.

Goicoechea consiguió educar con esmero a la Capilla de la Catedral, que regentó hasta 1915, y para la cual compuso la mayor parte de sus obras. Fundó además el Orfeón Vasco-Navarro, integrado por valiosos elementos entre los estudiantes vascos de derecho y medicina.

Es autor fundamentalmente de música religiosa, entre otras de un apreciado *Christus factus est*, varias misas y una última de requiem póstuma. Fallece en Valladolid el año 1916.

Aramaioko (Araba) Ibarran jaio zen 1854. urtean. Pianoko ikasketak burutu zituen unibertsitatekoekin batera. 1881ean notario titulua eskuratu zuen. Geroago, apaiz izateko ikasketa guztiak egin zituen Valladolideko Apaizgaitegian. 1890ean, bertako katedraleko kapera maisu plaza atera zuen lehiaketa bidez. Irakasle bakarra izan zuen, F. Gorriti, eta berarekin ikasi zituen kontrapuntua eta fuga.

Fintasun handiz hezi zuen Katedraleko Kapera eta beretzat idatzi zituen musika-lan gehienak. 1915 arte izan zen bertako maisua. "Orfeón Vasco-Navarro" sortu zuen euskal ikasleekin.

Musika-lanik garrantzitsuenak: *Miserere* eta *Vexilla Regis*, koru eta bandarako; *Himno al Sagrado Corazón*, sei ahots eta orkestra; *Mandatum*; bere lehen etapako *Villancicos*; *Christus factus est*; *Miserere*; *Te Deum laudamus*; *Salve Regina* (Aramaioko herriari eskainia); *Himno a San Francisco*; *Jerusalem*; hainbat meza eta hil ondorengo requiem meza. Valladoliden hil zen 1916. urtean.

## GONZÁLEZ, Iker

Doctor en Química por la Universidad del País Vasco. Recibe los primeros conocimientos musicales de su madre, Miren Tere Cobeaga. Por otro lado recibe los fundamentos para tocar el órgano de manos de Mari Carmen Azpeitia y Esteban Elizondo. Como organista durante el 2010 participó en dos conciertos ofrecidos en Elche y en Zumaia. Durante el Festival Musical de Zumaia ha ofrecido diversas charlas en temas tales como “Ciencia y Música”, “Cine y Música” y la ópera.

Tras recibir los fundamentos de la armonía de manos de Asentxio Elustondo se puede considerar que su aprendizaje ha sido autodidacta. Ha realizado obras y arreglos para diversos grupos musicales de Zumaia (Coro Gabon, Beheko Plaza Abesbatza, Zumaiako Udal Musika Banda y San Pedro Abesbatza); así mismo ha compuesto obras para el Coro Parroquial de Itziar y para Landarbaso Abesbatza de Errenteria. Cabe destacar que en el 2013, dentro del programa de ayudas a la creación coral de la Federación de Coros de Gipuzkoa, se estrenó la obra *Itxaso ta Eguzkia* por parte de San Pedro Abesbatza. Tanto dicha obra como *Ama Lur*, escrita sobre textos de Bitoriano Gandiaga, se encuentran en el disco que bajo el título *Suite* grabaron Zumaiako Udal Musika Banda y San Pedro Abesbatza durante el 2013.

Euskal Herriko Unibertsitatetik Kimikan doktorea. Musika ikasketak bere ama den Miren Tere Cobeagarekin hasi zituen. Organoa jotzeko oinarriak, berriz, Mari Carmen Azpeitia eta Esteban Elizondorengandik jaso ditu. Organojole bezala 2010an Elxen eta Zumaian antolatutako bi kontzertuetan parte hartu zuen. Zumaiako Musika Jaialdian, berriz, azken urteetan hitzaldi ezberdinak eskaini ditu zientzia eta musika, zinea eta musika, eta operaren inguruan.

Asentxio Elustondorekin harmoniaren oinarriak ikasirik, hortik aurrera bere prestaketa autodidakta izan dela esan daiteke. Hainbat obra eta moldaketa idatzi ditu Zumaiako musika talde ezberdinentzat (Gabon Korua, Beheko Plaza, Zumaiako Udal Musika Banda eta San Pedro Abesbatza); baita Itziarko Parrokiko Abesbatzarentzat eta Errenteriako Landarbaso Abesbatzarentzat ere. Aipatzekoa da 2013an Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak duen “Sorkuntza Koralerako Laguntzak” programaren barne *Itxaso ta eguzkia* obra estreinatu zuela San Pedro Abesbatzarekin. Obra hau eta Bitoriano Gandiagaren hitzen gainean idatzitako *Ama Lur* obra 2013an Zumaiako Udal Musika Bandak eta San Pedro Abesbatzak grabaturiko *Suite* diskoan aurki daitezke.

## GUERRERO, Junkal

http://junkalguerrero.wordpress.com/

Nacida en Andoain, Gipuzkoa, en 1968. Es titulada superior en Solfeo, Piano, Clave, Pedagogía Musical y Dirección de Coros por el Conservatorio Superior de San Sebastián. La experiencia vivida desde 1995 a 2007 como componente de KCK bajo la dirección de Javier Busto ha dejado una huella imborrable en su formación y trayectoria coral. Actualmente compagina su labor docente como profesora de piano en el Conservatorio Profesional Francisco Escudero, con la dirección y composición coral. Es directora de Luberri Abesbatza desde 2008 y de Loinatz Abesbatza desde el 2012. Su obra *Bi bihotz* fue obra obligada del Certamen Coral Infantil de Tolosa 2007 y "*Kalera gazteak*" del de 2011. Ha escrito por encargo para Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki abesbatza, Unanue kamara korala… Sus obras son editadas en www.cm-ediciones.com.

Andoainen jaio zen 1968an. Donostiako Kontserbatorioan Solfeo, Piano, Klabe, Musikaren Pedagogia eta Koru Zuzendaritza ikasketak egin zituen. 1995tik 2007ra Javier Bustoren zuzendaritzapean KCK-ko kide izateak, bai formazio bai koru ibilbidean eragin handia izan zuen. Gaur egun, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorio Profesionalean pianoko irakasle da eta zuzendaritza eta korurako konposizio lanekin uztartzen du. 2008tik Luberri Abesbatzako zuzendaria da eta 2012tik Loinatz Abesba-tzakoa. Berak sortutako *Bi bihotz* lana, 2007ko Tolosako Haur Abesba-tzen Lehiaketan derrigorrezkoa izan zen, eta "*Kalera gazteak*" 2011koan. Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki abesbatza eta Unanue kamara koralerako, obrak sortu ditu enkarguz. Bere obrak www.cm-ediciones.com-en argitaratzen ditu.

## GURIDI, Jesús

http://www.eresbil.com/web/guridi/

Nació en 1886 en Vitoria-Gasteiz. Hizo sus primeros estudios musicales en Madrid. Los continuó en Bilbao con Sainz Basabe y amplió en la Schola Cantorum de París con Vincent d'Indy y más tarde en Bruselas con Joseph Jongen y Colonia con Otto Neitzel. Desde 1912 fue director de la Sociedad Coral de Bilbao e inició una brillante etapa de compositor, escribiendo en todos los géneros: música religiosa, para coros, órgano, orfeónica, música de cámara (dos cuartetos de cuerda), sinfónica (*Sinfonía Pirenaica, Homenaje a Walt Disney)*, lírica (*Mirentxu, Amaya, El Caserío, Mari-Eli, Peñamariana…*), música de cine, etc. En 1939 fijó su residencia en Madrid. Desempeñó la cátedra de órgano en el Real Conservatorio, del que fue director desde 1956 hasta su muerte en 1961.

Gasteizen jaio zen, 1986an. Madrilen burutu zituen musika-ikasketak. Bilbon jarraitu zituen Sainz Basaberekin eta Pariseko Schola Cantorumen Vincent d´Indyrekin, Bruselan Joseph Jongenekin eta Kolonian Otto Neitzelekin sakondu. 1912az geroztik, Bilboko Koru Elkarteko zuzendaria izan zen eta musikagile etapa oparoari ekin zion musika genero guztiak landuz: koruentzako musika erlijiosoa, organorako, orfeoirako, ganbera-musika (harizko laukote bi), musika sinfonikoa (*Sinfonia pirenaica, Homenaje a Walt Disney*), lirikoa (*Mirentxu, Amaya, El Caserío, Mari-Eli, Peñamariana ...*), zinerako musika, etab. 1939an, Madrila joan zen bizitze-ra. Organo Katedraduna izan zen Madrileko Goi-mailako Kontserbatorioan eta 1956tik bertako zuzendaria, 1961ean zendu zen arte.

## IBAÑÉZ, Francisco

Nace en Oyón, Alava, en 1951. Estudia en Barcelona armonía y contrapunto con Poch, Guinovart, Oltra y Soler, y dirección coral con E. Ribó. Completa sus estudios en Bilbao con Juan Cordero y en Vitoria composición e instrumenta-ción con Carmelo Bernaola. Es licenciado en Ciencias de la Educación por la Universidad Autónoma de Barcelona. Ejerce la docencia en el Conservatorio de Música "Jesús Guridi" de Vitoria-Gasteiz.

Es autor de numerosas obras tanto en los géneros vocal como instrumental, cámara, banda, sinfónico o música de cine. Es de resaltar en su vertiente compositiva las obras realizadas con destino pedagógico.

1951n jaio zen Oionen (Araba). Harmoniako eta kontrapun-tuko ikasketak burutu zituen Bartzelonan Poch, Guinovart, Oltra eta Solerrekin eta koru-zuzendaritzakoak E. Ribó-rekin. Bilbon sakondu zituen ikasketak Juan Corderore-kin eta Gasteizen burutu konposiziokoak eta instrumenta-ziokoak Carmelo Bernaolarekin. Hezkuntza Zientzietan Lizentziatua da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Gasteizeko "Jesús Guridi" Musika Kontserbatorioko irakas-lea da.

Musika-lan asko sortu ditu ahots, musika-tresna, kamara, banda eta arlo sinfonikoan eta zinerako musika ere bai. Azpimarratzekoak dira konposizio arloan xede pedagogikoz sortu dituen musika-lanak.

## IRADIER, Sebastián

Nació en la localidad alavesa de Lanciego en 1809. Entre los años 1821 y 1824 fue tiple de la Universidad de las Parroquias de Vitoria. En 1827 ganó la plaza de organista de Salvatierra por oposición. En 1833 se trasladó a Madrid, y entre los años 1839 y 1850 fue primer maestro de Solfeo para Canto del Conservatorio Real. Fue vicepresidente de la Academia Filarmónica Matritense y catedrático de armonía y composición del Instituto Español. Fiel ejemplo de su espíritu romántico, se trasladó a Paris e inició su gira americana por Estados Unidos, México y Cuba, con las populares sopranos Patti y Alboni. Al volver a París llegó a ser profesor de canto de la emperatriz Eugenia de Montijo, y se relacionó con cantantes como Viardot y Malibran. Enfermo de la vista volvió a Vitoria, donde vivió hasta su muerte en 1865.

Su catálogo recoge ciento cincuenta títulos, y la mayoría son canciones de salón, italianas, francesas, españolas y sudamericanas, entre las que destacan las habaneras. *La paloma*, *El Arreglito*, que utilizó Bizet en su ópera *Carmen* o *La negrita*, que utilizara Lalo en su *Sinfonía Española*, son claro ejemplo de la proyección de sus canciones románticas.

Lantziegon jaio zen 1809. urtean. 1821. eta 1824. urteen artean Gasteizko Parrokietako Unibertsitateko tiplea izan zen. 1827. urtean Aguraingo organista plaza irabazi zuen oposizioz. 1833. urtean Madrilera joan zen, 1839. eta 1850. urteen artean Kontserbatorio Errealeko Kanturako Solfeoko lehen irakasle izan zelarik. Academia Filarmónica Matritenseko zuzendariordea izan zen eta harmonia eta konposizio katedraduna izan zen Instituto Españolen. Izaera erromantikoaren eredu leial, Parisera joan zen eta Ameriketan birak eskaini zituen, Estatu Batuetan, Mexikon eta Kuban, Patti eta Alboni soprano sonatuekin. Parisera itzuli zenean Eugenia de Montijo enperatrizaren kantu irakaslea izatera heldu zen, Viardot eta Malibran bezalako abeslariekin erlazionatuz. Bistatik gaixoturik Gasteizera itzuli zen eta bertan bizi izan zen 1865. urtean hil zen arte.

Bere obraren katalogoak ehun eta berrogeita hamar titulu biltzen ditu, gehienak saloirako abestiak, italiar abestiak, frantziarrak, espainiarrak eta hegoamerikarrak direlarik, eta azken horietan habanerak nabarmentzen dira. *La paloma*, *El Arreglito*, Bizetek *Carmen* bere operan erabilitakoa edo *La negrita*, Lalok *Sinfonia Española*-n erabilia, bere abesti erromantikoek izan zuten proiekzioaren adibide dira.

## ISASI, Andrés

Nace en Bilbao en 1890. Miembro de la familia de los marqueses de Barambio, estudia música y piano con Miguel Unceta en Bilbao. A los 12 años ofrece recitales de piano a pequeños grupos de la alta sociedad bilbaína. En 1908 se presenta como compositor en diversos conciertos organizados en la sala de la Sociedad Filarmónica de Bilbao y la editorial Lazcano y Mar le publica sus primeras obras. En 1909 se traslada a Berlín para perfeccionar sus estudios con Karl Kampf y Humperdinck. Durante esos años estrena en Berlín varias de sus obras. Su poema sinfónico *Zharufa* logra un premio en el concurso internacional de Malmö de Suecia. Al estallar la guerra en 1914 regresa a su tierra, fijando su residencia en Algorta. Durante esos años su música se interpretó en ciudades como Berlín, Estocolmo, Bilbao o Madrid, y parte de su obra fue publicada en Budapest. Fallece en Algorta en 1940.

Bilbon jaio zen 1890ean. Barambioko markesen familiakoa zenez, Miguel Unzetarekin ikasi zituen musika eta pianoa Bilbon, eta 12 urte zituela piano-emanaldiak eskaintzen zituen. 1908an musikagile jardunean aurkeztu zen Bilboko Elkarte Filarmonikoaren aretoan egin ziren zenbait kontzertutan, eta Lazcano y Mar argitaletxeak bost koaderno argitaratu zizkion. 1909an Berlina jo zuen Karl Kampf eta Humperdinck-ekin piano eta konposizio ikasketak burutzera. Urte horietan hainbat obra sinfoniko estreinatu zituen Berlinen. *Zharufa* poema sinfonikoak Suediako Malmö hiriko nazioarteko lehiaketan saria irabazi zuen. 1914ko gerratea hastean itzuli behar izan zuen Algortara. Bere lanak Berlin, Stockholm, Bilbo eta Madrilen interpretatu izan ziren eta Budapest-eko Rozsavolgyi & Cº. argitaletxeak argitaratu zion. Algortan hil zen 1940an.

## LACY, Rophino

Nació en Bilbao en 1793. Su padre, Francisco, había nacido en Lazie Mac Ros, Condado de Monaghan, y su madre, Catalina, en Aidel, Condado de Lough, ambas poblaciones en Irlanda del Norte. Desde muy niño mostró unas precoces cualidades para el violín, actuando en Bilbao y Madrid como un artista revelación.

En 1802 amplió sus estudios en Burdeos y París, donde fue discípulo de Kreutzer.

Unos reveses comerciales obligaron a la familia de Rophino Lacy a instalarse en Londres. Aquí tuvo como profesor a Wiotti. Luego siguieron Dublín y Edimburgo, donde su padre le hizo abandonar la música por el teatro. En 1820 volvió a Londres, donde obtuvo la plaza de compositor de bailes en el teatro italiano y después pasó a Liverpool, como director de conciertos. Dejó un buen número de obras musicales, falleciendo en Londres en 1861.

1793. urtean jaio zen Bilbon. Gurasoak Ipar Irlandarrak ziren. Aita, Francisco, Monaghan Konterriko Lazie Mac Ros herrikoa zen eta ama, Catalina, Lough Konterriko Aidelekoa. Bibolinarekiko dohai bereziak erakutsi zituen txiki-txikitatik eta kontzertuak eman zituen Bilbo eta Madrilen, eta etorkizun oneko artistatzat jo zuten.

1802an Bordelen eta Parisen sakondu zituen ikasketak Kreutzerekin.

Familiaren merkatari-lanetan ustekabeak zirela medio, Londresen kokatu behar izan zuen eta Wiotti izan zuen irakasle. Ondoren, Dublin eta Edinburgen aritu zen eta aitak behartuta, musika alde batera utzi eta antzerkigintzari ekin zion. 1820an, Londresa itzuli zen eta italiar aretoan dantzarako musikagile izendatu zuten. Ondoren, Liverpoolen izan zen kontzertu-zuzendari lanetan. Musika-lan ugari sortu zituen, 1867. urtean hil zen Londresen.

## LAVILLA, Félix

Nace en Pamplona en 1928 y cursa estudios de música en San Sebastián. Termina su carrera de piano realizando los cursos de virtuosismo en el Real Conservatorio Superior de Música con José Cubiles.

Obtiene éxitos importantes de público y crítica en las giras mundiales por Europa, América, África, Japón y en los festivales internacionales de Salzburgo, Australia, Osaka, Bergen y Leeds con artistas como Teresa Berganza, Victoria de los Ángeles, Carlo Bergonzi, Pilar Lorengar, Maurice Gendron, Gaspar Cassadó, Agustín León Ara, Pedro Corostola o Jessy Norman.

Ha sido catedrático de repertorio estilístico-vocal en la Escuela Superior de Canto de Madrid y en los Cursos Internacionales "Manuel de Falla" de Granada. Su prestigio internacional como profesor e intérprete en la especialidad de música de cámara, le ha llevado a impartir clases magistrales en diversas universidades de Norteamérica. Es autor de obras para canto y piano, principalmente.

Posee una amplia discografía con firmas como Decca, Deutsche Grammophon y Columbia. Fallece en Madrid el año 2013.

Iruñean jaio eta musika ikasketak Donostian egin zituen. Pianoko karrera amaitu zuen birtuosismo ikastaroak Musikako Goi Mailako Kontserbatorioan José Cubilesekin egin zituelarik.

Publiko eta kritikaren arrakasta garrantzitsuak lortu zituen mundu mailako biretan Europa, Amerika, Afrika, eta Japonian zehar eta Salzburgo, Australia, Osaka, Bergen eta Leedseko nazioarteko jaialdietan, Teresa Berganza, Victoria de los Ángeles, Carlo Bergonzi, Pilar Lorengar, Mauricio Gendron, Gaspar Cassadó, Agustín León Ara, Pedro Corostola eta Jessy Norman bezalako artistekin.

Madrileko Goi Mailako Eskolako errepertorio estilistika-bokaleko katedraduna izan zen eta baita Granadako “Manuel Falla” Nazioarteko Ikastaroetan ere. Ganbera musikako espezialitatean irakasle eta interprete bezala duen sonagatik, Iparramerikako hainbat unibertsitatetan ikasketa magistralak eman ditu. Kantu eta pianorako obrak konposatu zituen bereziki.

Decca, Deutsche Grammophon eta Columbiarekin disko ugari editatu ditu. Madrilen 2013 urtean hil zen.

## LAZKANO, Ramon

http://www.lazkano.info/

Nace en San Sebastián en 1968. Estudió piano con J.Padrosa y composición con F. Escudero en el Conservatorio de San Sebastián. Estudia en el CNSM de París con Alain Bancquart y Gérard Grisey, obteniendo el 1er Premio de Composición en 1990. Amplía estudios en Montreal con Gilles Tremblay. Es diplomado en la École des Hautes Études en Sciences Sociales de París.

